

*Zorionak Tito!*

**Altzako Preso Politikoak**

Iritsi duk eguna, Tito. Jakin genuenetik kaleratzeaz hengoela zirrara berezia sentitu diagu gorputzean. Haatik, hauekin ez gaituk fidatzen gehiegi eta poztasun hori eusten egon gaituk, hire kaleratze hori gauzaterakoan, gure poztasuna indartsu aireratu dugun arte. Makina bat aldiz amestutako unea iritsi zaik. Hor aurrean, etxekoak, senideak, lagunak eta beste herritar asko izango dituk agur beroa eskeintzeko. Eta beste askotan, gose greban, txapatuta edo beste zerbaitetan geundelako, aurpegi goibel baina fermuz elkartu diren bezala, gaur irribarre zabalak izango dituk hire aurrean. Baita malkoren bat ere, baina horietakoak egon daitezela ugari, zorionezkoak dituk eta.

Eta guztion aurrean hire ama, gure Kontxa. Urte hauetan guztietan hi bezainbeste zigortu dutena, Tito. Makina bat kilometro egindako emakumea zara, Kontxa. Semea edozein tokitara eramanda ere, han zeunden berehala. Beraz - zure semeak emango dizun lore sorta hau jasotzeaz gain -, har ezazu gure omenaldi beroena eta hemen gauden guztiok eskaintzen dizkizugun txalo bero hauek izan daitezela horren adierazle onenak.

Hemezortzi urte eta erdi pasatu dituk, Madrileko DGSko egun gogor haiek pasatu ondoren, espetxeratu gintuztenetik. Une latzak pasatu dizkiagu, horietako asko elkarrekin. Beste batzuetan bakarrik egon behar izan gaituk, baina kolektiboko partaide izate horrek ematen duen indarrarekin aurrera egin diagu beti. Lehengoko urte haietatik gauza asko aldatu dituk. Urte asko pasatu diagu sakabanatuak, etsaiak pentsatu zuelako horrela amore emango genuela. Zein gubri ezagutzen gaituzten, gurekin makina bat esperimendu egin duten arren!

Edo ederki ezagutzen gaituzte eta horrelako zerbait pentsatuko zitean: ez duzue amore emango, baina txikituko zaituztegu. Gure jarrera herriaren duintasunean oinarritzen duk. Azken finean herri baten, mugimendu askatzaile baten, hondar aleak besterik ez gaituk. Eta guk gure egoerari eutsi egin zioagu, Tito, baldintza berdinetan, herri honetako edozein abertzalek eutsiko zioan bezala. Izan ere, herritar xumeak besterik ez gaituk.

Aro berri batean sartuak gaituk. Haiza berriak dizkiagu gure Euskal Herri maitean. Edonola, oso garbi izan behar diagu, Lizarra-Garaziko Ituna aurreko urteetako pairamenduan oinarritzen dela. Ezin diagu ahaztu lagun askok eta askok bizia galdu dutela, nahiz eta Euskal Herriko gogo kolektiboan egongo diren betirako.

Belaunaldi askoren ahalegina izan duk. Oraindik bide luzea gelditzen zaiguk. Ez duk izango erraza, baina gure urratsak norabide bakarra ditek. Ez zekiagu noiz lortuko dugun, baina bazekiagu zer nahi dugun: gure egarria independentziaz besterik ezin duk ase.


Ez dut nahi aukera hau galdu honen bildu zaretan lagun guztiari esateko, espetxeetan borrokan jarraitzen dugula eta, lehen urrats bezala, Euskal Herrira eramane arte borrokan jarraituko dugula. Badakigu zuek ere ez zaudetela gora begira, baina guztion artean ekintzak biderkatu egin behar ditugu gobernu espainolak amore emanaz, gure helburuak bete daitezzen. Eta egon ziur lortuko dugula.

Beno Tito, esan daiteke birjaio haizela. Mundu edo errealitate berri horri egin beharko diok aurre, baina espetxera nolabait moldatu bahintza, errazago moldatuko haiz askatasunera. Gure kolektiboak hire galera sentituko dik, baina kide bat galtzean poztu egiten den kolektibo bakarra izango gaituk. Ez nauk hasiko gorai patzen, Altzan ezagutzen haite eta bestela ere laster jabetuko dituk hire zintotasunaz, apaltasunaz, indarrak eta euskararekiko maitasunaz.

Hire betiko irribarre hori hedatu dadila Altza osoan. Eta jakin hazekiagu hor aske egon arren, hire zati bat gurekin egongo dela beti.

Lerro hauek idazten ari nintzela jakitean, Murtzian dauden lagun guztiak hiri zuzendutako omenaldi horretan parte hartu nahi izan ditek eta hartzairen besarkada bidaltzen ditek. Badakik, hori omen baituk dagoen tinkoena. Denok hirekin, lagun. Besarkada bero bat.

Koldo DE MARCOS





Kaixo titoi! Orain dela egun batzuk komentatu egin zidaten aterako zinela kalera 18 urte ta erdi espetxean egon eta gero.. Gurezat berri on bat da eta ongi dakigu bahitua egon zarela azken 3 urteotan Gobernuaren eskuetan

Titoren kasua ez da bakarra, eta denon artean lortu behar dugu egoera hori aldatzea, ezin baitugu erori pasibokerian. Hau argi eta garbi dago, beraz, lanari eman beharko dugu lehentasuna, Koldo eta Fernando ere Aitza egon daitezten lehen bait lehen.

Egizue omenaldi on bat Titori, zeren 18 urte ta erdi espetxean egonda, Titok ongi daki zer den txantaila eta sufrimendua, zoritxarez beste ehundaka kide bezala, eta horregatik une itzaropentsu honetan gure agurrik beroena bidali nahi genioke espetxe honetatik. AUPA TITOI

GORA EUSKADI ASKATUTAI  
Juan Carlos ESTEVEZ, Mellí



**Zalla da oso barne honetatik, hain estu eta elkarrekin bizi izan dugun kartzelaldi luze honetako lagun bati zuzentzea bere askatasunaren egunean. Eta are gehiago bi hitz labur eta indartsuz. Eta zer esanik ez lagun hori Imanol denean...**

**Sentimentu leherketa beharko zuen une hunkigarri hau lau hitz xumeetara murriztu beharrak bihotz zimikoak sortarazten dizkit etengabe. Elkarrekin bizi izandako bizipenak hain dira aberatsak, hainbeste bere laguntasunaz, elkartasunaz eta adorea ikasitakoa, ezen lotsa besterik ez dit sortzen hitz eskas eta hauskor hauek erabili beharrak.**

**Liburukoteak beteko gerrizkikek, ongi aski dakian bezala, laguna elkarrekin bizitako bizipenekin. Benetazkoak, sakonak, latzak hainbatetan, goxoak gehienetan, bihotzetik abiatu eta bihotza dutena helburu. Ez duk inorentzako sekretu ene lagun eredugarri bilakatu haizela Euskal Preso Politikoen Kolektiboarentzako.**

**Hainbat eta hainbat lagun eta kide gaituk hire adore nekaezinaren, hire laguntasun, umore eta elkartasunaren lekuko. Eta hainbeste malte eta amesten dugun Euskal Herriaren alde buru-bihotzez aritzea. Baina ez ditzagun hitzak eta denbora alferrik gal; aspaldi esan dizkiagu esan beharrezko hitz guztiak, eta hi hor ikustea nahiko sari duk denontzat.**

**Honela ba, besarkada askatzaille bat, lagun. Eta elkarrekin behin ilusio osoz abiatutako bide haren amaiera gauzatuko den egun itzaropengarriaren zain: adiorik ez Imanol!**

**Fernando ARBURUA**



Kaixo Tito!

Hamar urte inguru izango nituen eraman zintuztenean, hantxe ibili ohi ginen hamaikatxo mukitsu ikastolan futboleaz, beste batzutan arkaitzetara edo Mendiola baserri-runtz ospa eginez eta zuei makina bat buruhauste sortzen genizuen.

Ahopeka jakin genuen poliziak Tito eraman zuela, gaur, etxean dugu burkidea presondegietan 18 urtez borrokatu ondoren, herri bezala dagozkigun eskubideengatik alegia.

Une garrantzitsuak bizi ditu gure herriak, baina borrokan jarraitu beharrean gaude Tito, horregaitik, jator bezain apal jarrai dezagun Euskal Herria eraikitzen.

GORA EUSKAL HERRIA ASKATUA!

Joseba ARIEMENDI, "Filili"



Aupa Tito,

Un enorme saludo desde Herrera, pero no desde el barrio precisamente, je, je. Me he alegrado mogollón de saberte por las calles del barrio de nuevo. Cada vez que sale alguien de dentro, también nos lleva al resto con él.

Nos alegramos todos y es un orgullo que en tantos años de represión no hayan podido contigo.

En estos hechos demostramos que amamos de verdad a este pueblo, y que no hay más camino que la lucha constante, con el convencimiento y la ilusión que tú nos has demostrado.

No te conocí en la calle; cuando vosotros caísteis en las garras de la represión yo aún llevaba un balón debajo del brazo y se me caían los mocos, pero el ejemplo de quienes habéis luchado antes que nosotros ha cundido, y las semillas de libertad que plantasteis han dado fruto.

Ahora toca regar entre todas/os este hermoso árbol que es Euskal Herria y conquistar nuestro futuro.

GORA TITO! GORA E.T.A.!!

Alfontso CASTRO



# ONGI ETORRI ETXERA TITO!

*Euskal Herria dugu irabazteko*

*Lotu borrokari!*

*Antolatuz gaituz!*

**ALTZAKO PRESO POLITIKOAK**

**Joseba ARIZMENDI, Alfontso CASTRO, Kristina GETE, Josu LONBIDE,  
Juan Carlos ESTEVEZ, Fernando ARBURUA, Koldo DE MARCOS**